


# Osasun Eskualde Oinarrizkoa


## Txantrea



Observatorio de Salud Pública de Navarra  
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia



Fuente: SITNA-ISPLN



### 1. Argibide orokorrak

|                                    | Eskualdeko balioa                            | Nafarroa                  |
|------------------------------------|----------------------------------------------|---------------------------|
| Biztanleria (2023):                | 19.814<br>Emak.: %51,8<br>Giz.: %48,2        | 672.155<br>%49,5<br>%50,5 |
| Batez besteko adina:               | Emak.: 48<br>Giz.: 45,2                      | 46,3<br>43,2              |
| Ugalkortasun-tasa:                 | %130                                         | -                         |
| Gazteen mendekotasunaren indizea:  | % 21,5                                       | %24,7                     |
| Zahartzaroko mendekotasun indizea: | %39,2                                        | %32,0                     |
| Gainzahartzea:                     | %19,7                                        | %17,2                     |
| Atzerritan jaiotako biztanleak:    | %17,1                                        | %17,9                     |
| Bizi itxaropena:                   | Emak.: 86,3<br>Giz.: 79,9                    | 86,8<br>81,3              |
| Biztanleria-densitate:             | 5252,8 biz.km <sup>2</sup>                   | 68,9 biz.km <sup>2</sup>  |
| Zabalera:                          | 3,77 km <sup>2</sup>                         | 9758,6 km <sup>2</sup>    |
| Zer Eskualdetakoa den:             | Eremu Zentrala ( <a href="#">ikus mapa</a> ) |                           |
| Udalerriak:                        | Pamplona/Iruña (distrito 6)                  |                           |

### 2. Komunitatea eta osasuna

**Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak.** Txantreako osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, pobrezia larriko arrisku-tasa (% 6,4) eta diru-sarreraren desberdintasuneko Gini indizea (% 27,1) txikiak dira. Hala ere, bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen ehunekoa (% 44,6)

eta langabezia-tasa (% 13,2) handiak dira. Gainerako adierazle soziodemografikoak eta ingurumenekoak Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude.


**Osasunari dagozkion emaitzak.** Txantreako osasun-eskualde oinarrizkoa eskualdeen laurden hoberenean dago datu honetan: TA-ren neurraketa duten hipertentsoak (% 63,6). Aitzitik, emaitza txarrak ditu datu hauetan: 2 motako diabetesa diagnostikaturik duten pertsonak (emakumeen % 6,6 eta gizonen % 9,8), 3 patologia kroniko edo gehiago dituzten gizonak (% 14,0) eta pisu gehiegi duten 6tik 9 urtera bitarteko haurrak (nesken % 37,0 eta mutilen % 34,3).

**Inkesta-adierazleak.** Hurrengo emaitza doitu\* hauek Eremu Zentrala eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Txantreako eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Eremu Zentralak emaitzarik onena du zenbait adierazletan: gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko emakumeek: % 32,3) eta bizimodu sedentarioa izatea (gizonek: % 16,4). Aitzitik, emaitzarik txarra du hiru adierazletan: frutak eta barazkiak egunero jatea (emakumeek: % 30,6; gizonek: % 24,5), tabakoa egunero erretzea (gizonek: % 24,9) eta alkohola astero edatea (gizonek: % 25,0).

**\*Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

### 3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



**Adierazleen iturria:** 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Est.; 4-5: Errenta. Est.; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzaten Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

# Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

\* Nabarmen desberdinak ( $p < 0,05$ ) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimodu en, morbiditatearen en osasun sistemaren adierazleentarako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; 2. DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; 3. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; 4. Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; 5. Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; 6 eta 7. Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; 8. Baso-azalaren %; 9. 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; 10 eta 11. Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 32,1 eta gizonak 24,4); 12 eta 13. 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doitua: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 23,3 eta gizonak 16,5); 14 eta 15. Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doitua (t. gordina: emakumeak 10 eta gizonak 24,5); 16 eta 17. Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 13,3 eta gizonak 25,2); 18 eta 19. Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 31,6 eta gizonak 24); 20 eta 21. Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 31,8 eta gizonak 57,5); 22 eta 23. Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doitua, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 38,3 eta gizonak 35,2); 24 eta 25. 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doitua (T. gordina: emakumeak 8,4 eta gizonak 10,9); 26 eta 27. 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 8,4 eta gizonak 15,2); 28 eta 29. Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doitua: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 18,8 eta gizonak 9,6); 30. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; 31. Azken urtean hipertentzioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaien biztanleriaren %.